

Lagun maitea:

Itxaropena eskatu nahi dizut.

Ez erreserbatu edo gordetzeko, baizik eta banatzeko; are gehiago, sustatzeko, eragiteko, arrazoiz bete eta alaitasunez partekatu ahal izateko.

Ibili dabilen, irribarre egiten duen, argizatzen duen itxaropena. Hunkitzen duen eta egunero arnasa sakon hartu eta etorkizunari ilusioz aurre egiten laguntzen digun itxaropena.

Gabonak oso maiteak eta adierazgarriak dira kristauontzat, eta garai horretan are argiago daukagu itxaropen sasoia dela. Hori da Cáritasen kanpaina honen leloa.

Gure kristau komunitateek arrazoi asko dauzkate itxaropenean sinisteko, keinuen, aukeren eta jarrerren bidez bizitzeko, horren testigantza eman eta kutsatzeko, gure bizitzan Jesus jaiotzen delako berriz, itxaroten genuen “*Emmanuel: Jainkoa-gurekin*”. Zailtasun egoeretan bizi diren pertsonen konpromisoaren bidez, guztiontzako Jainko hori iragartzen dugu.

Pista lagungarri batzuk proposatuko dizkizugu:

- Eman lehentasuna besteekiko harremanari, eskaintzen diezun denborari; irten bidera, aurrea hartu, harrera egin, entzun eta bizi alaitasunez. Gozatu eta gozarazi xehetasun txikiez, begiradez, isiltasunaz... behatu bizitza eta gure fede partekatuaren zoriona.
- Kontsumitu zentzuz, bidezko merkataritza aukera ona da beste herrialde batzuetako errealitatea hurbiletik ezagutzeko eta merkataritza iraunkorrari laguntzeko, ekoizleen eta beren familien mesedetan. Gabonetan opariak baino zerbait gehiago eman dezakezu: Beste batzuentzat itxaropena izan zaitezke.
- Ez gehiago itxaron: urte berri bat hastear da. Partekatu zerbait gehien behar dutenekin; zure denbora, ondasunak, trebetasunak eta ezagutzak... eta utzi errealitate horrek bereganatu zaitzan.
- Zabaldu kanpaina honen berri eta Cáritasek zure kristau komunitatearen konpromisoaren bidez egiten duen lanaren berri, banatu liburuxkak ahal duzun lekuetan, jarri kartel osagarriak tenpluetatik kanpo...

Gabonak itxaropen garaia dira. Bizi eta biziarazi garai hau itxaropenez. Eskerrik asko eta animo!

Jaso ezazu besarkada estu bat.

Carlos Burgos
Zuzendaria

Querida amiga, querido amigo:

Te pido esperanza.

No para que la reserves o la guardes, sino para que la repartas, más aún: para que la suscites, la provoques, la llenes de razones y puedas -con alegría- compartirla.

Esperanza que camina, que sonrío, que ilumina. Esperanza que conmueve y que nos permite cada día respirar hondo y afrontar el futuro con ilusión.

En estas entrañables fechas de Navidad, tan significativas para los cristianos, nos hacemos más conscientes, si cabe, que la Navidad es tiempo de esperanza. Ese es el lema de esta campaña de Cáritas.

Nuestras comunidades cristianas tienen muchas razones para creer en la esperanza, para vivirla a través de gestos, opciones, actitudes, para dar testimonio de ella y contagiarla, porque renace en nuestra vida Jesús, el esperado “*Emmanuel: Dios-con-nosotros*”. Es a través de tu compromiso en favor de las personas que viven en situación de dificultad, como eres y somos anuncio permanente de este Dios para todos.

Proponemos algunas pistas que pueden ayudar:

- Da prioridad a las relaciones con los demás, al tiempo que les dedicas; sal al encuentro, toma la iniciativa, acoge, escucha y vívelo con alegría. Disfruta y haz disfrutar de los pequeños detalles, de las miradas, del silencio, contempla la vida y la fortuna de nuestra fe compartida.
- Consume con tus cinco sentidos, el comercio justo es una buena opción para acercarte a realidades de otros países y colaborar con un comercio sostenible para los productores y sus familias. Puedes llenar la Navidad de algo más que de regalos: puedes ser esperanza para otros.
- No esperes más: un nuevo año está a punto de comenzar. Comparte algo de ti con los que más lo necesitan, tu tiempo, tus bienes, tus habilidades y conocimientos... y déjate tocar por su realidad.
- Difunde esta campaña y la labor de Cáritas como compromiso de tu comunidad cristiana, buzonea los folletos allí donde se pueda, pega carteles adicionales fuera de los templos...

Navidad es tiempo de esperanza. Vive e invita a vivir este tiempo en clave de esperanza. Gracias y ánimo!

Recibe un caluroso abrazo.

Carlos Bargos
Director